

XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

522

AGINDUA, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bitartez zenbait jarduketa agintzen baitira Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 14ko 148/2021 Epaiak eta urriaren 27ko 183/2021 Epaiak direla-eta.

EGITATEZKO AURREKARIAK

Lehenengoa.– Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera ezarri zuen, COVID-19ak eragindako osasun-egoera kudeatzeko.

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

Bigarrena.– Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 14ko 148/2021 Epaiak partzialki onetsi du martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio bat. Ondorioz, Konstituzioaren aurkakotzat eta deuseztat jo ditu, besteak beste, 7. artikuluko 1. eta 3. apartatuak.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 27ko 183/2021 Epaiak partzialki onartu du urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio bat. Ondorioz, Konstituzioaren aurkakotzat eta deuseztat jo ditu, besteak beste, alarma-egoeraren adierazpenaren luzapena eta agintaritzaren autonomikoei egindako eskuordetzak.

Hirugarrena.– Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 14ko 148/2021 Epaiak aplikatuz, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2021eko abuztuaren 17ko Aginduaren bidez, zenbait jarduketa agindu ziren administrazio-bidean irimo bihurtu ez ziren zehapen-prozedura administratiboei dagokienez.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Bi Errege Dekretu indarrean jarri ondoren ezarritako hertsapenak desobeditzean oinarrituta, zenbait zehapen-prozedura administratibo hasi eta, kasu batzuetan, ebatzi dira.

Agindu honen xede dira, lehenengo alarma-egoerari dagokionez, administrazio-bidean irimo bihurtu den zehapen batekin amaitu diren prozedurak; eta, bigarren alarma-egoerari dagokionez bai izapidetzen ari diren prozedurak, bai ebazpena eman dutenak, administrazio-bidean irimo bihurtu direnak edo ez.

Bigarrena.– Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren (aurreantzean, KALO) 40.1 artikulua salbuespen bat ezartzen du zehapen-prozeduretarako: gauza epaituaren indarra duen epai bidez amaitutako prozesuak ezin izango dira berrikusi, baldin eta konstituzio-kontrakotzat jotako arauak aplikatu badira prozesu horietan.

Zehazki, KALOn 40.1 artikulua honako hau dio, hitzez hitz:

Lege, xedapen edo lege-indarreko egintzen konstituzio-kontrakotasuna deklaratzeko duten epaiak ez dute aukerarik emango gauza epaituaren indarra duen epai bidez gertatutako prozesuak berrikusteko, baldin eta prozesu horietan legeak, xedapenak edo konstituzioaren aurkako

egintzak aplikatu badira, salbu eta zigor-prozedura bati edo administrazioarekiko auzien prozesu bati dagozkion kasuetan, baldin eta, aplikatutako arauaren deuseztasunaren ondorioz, prozedura horrek zigorra edo zehapena murriztea edo erantzukizuna baztertzea, salbuestea edo mugatzea badakar.

Salbuespen hori, nahiz eta, KALOren 40.1 artikulua dioena hitzez hitz aztertuta, ez zaien aplikatzen administrazio-bidean irmo bihurtu diren eta judizialki errekurritu ez diren prozedurei, jurisprudenzia konstituzionalarekin lotu behar da. Jurisprudenzia horren adibide da Konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 27ko 30/2017 Epaia, zeinak in bonum atzeraeraginezko berrikuspene onartzera garamatza, zehapen-prozedura bati buruzko administrazio-prozesuei dagokienez ere –ez soilik zigor-prozedurei edo administrazioarekiko auzi-prozedurei dagokienez–; izan ere, aplikatutako arauaren deuseztasunaren ondorioz, erantzukizunetik salbuetsita geratzen da.

Konstituzio Auzitegiak ulertu du ez berraztertzeari buruzko arau orokorraren salbuespen horrek Konstituzioan bertan duela oinarria, eta, hain zuzen ere, 25.1 artikuluan, zeinak eragozten baitu, beste zehaztapen batzuen artean, inork ezin izatea zigor penalik edo administrazio-zehapenik jasan Konstituzio Auzitegiak konstituzio-kontrakotasuna aldarrikatu duen lege-arauak aplikatuz. Eta, ondorioz, ondorioztatu du berrikusteko bideak egon behar direla, bai administrazio-bidean, bai auzibidean, hartara bertan behera utzi ahal izateko, EKren 25. artikulua aginduz, epaiaren edo administrazio-egintzaren ondorio oro, nahiz eta irmo bihurtu; izan ere, beste aukera bat onartzeak zuzenean talka egingo luke EKren 25.1 artikuluaekin, zeinaren ondorio baita KALOren 40.1 artikulua (30/2017 KAE).

Hirugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APEL) 109. artikulua honako hau ezartzen du:

Preskripzio-epaia igaro arte, administrazio publikoek erreboka ditzakete kargak ezartzen dituzten edo inoren kalterako diren beren egintzak, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten jaregite edo salbuespena, eta ez bada berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa.

Kasu honetan, betetzen dira APELen 109. artikuluan ezarritako baldintzak, eta, beraz, errebokatu egin behar dira martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua 1. eta/edo 3. apartatuak urratzeagatik hasitako zehapen-prozedura administratiboak ebatzen dituzten ekintza administratibo irmoak.

Laugarrena.– Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua honako eskumen hau esleitzen die, oro har, Eusko Jaurlaritzako sailletako titularrei:

Jaurlaritzako kide gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, sailburuek honako eskumen hauek dituzte: [...] 4. Beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebatzpenak ematea.

APELen 111. artikulua ofizioz berrikusteko eskumena arautzen du Estatuko Administrazio Orokorren eremuan, baina autonomia-erkidegoan ez da berariazko arau-tratamendurik egin. Hala ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina erabakigarria da horri dagokionez (denen erakusgarri, 226/2017 Irizpena):

35.– Hori dela eta, gure doktrina aplikatu behar da. Doktrina horren arabera, lege autonomiko batean arau-aurreikuspenik ez dagoela kontuan hartuta, ulertu behar da ofiziozko berrikuspen-espedienteak ebatzeko eskumena sailletako sailburuei dagokiela, egintzaren gaia kontuan hartuta, eta hori justifikatzen da Jaurlaritzaren Legearen 26.4 artikulua arabera esleitura dauden esleipen generikoan.

Beraz, errebokatze eskumena Lehenengo lehendakariordeak eta Segurtasuneko sailburuak du.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehenengo alarma-egoerari dagokionez, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoa urratzeagatik hasitako administrazio-prozedurak amaitzeko administrazio-ebazpen zehatzaileak errebokatzen dira. Dekretu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen da.

Bigarrena.– Bigarren alarma-egoerari dagokionez, gaur egun hasi gabe dauden zehapen-prozedura administratiboak ez dira hasiko.

Amaiera ematea erabaki da, jarduketak artxibatuta, zehapen-ebazpenik eman ez den zehapeneko administrazio-prozeduretan, baldin eta, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaritzen duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, agintaritza delegatuak emandako arau batean xedatutakoa ez betetzeagatik ireki badira.

Gora jotzeko errekurtsioak baiesten dira, ezarritako zehapena deuseztatzeko soilik, baldin eta agindu hau ematen den egunean ez bada administrazio-ebazpenik eman errekurtsio horiek ebatzeko, eta, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaritzen duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, agintaritza delegatuak emandako arau batean xedatutakoa ez betetzeagatik ireki badira.

SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaritzen duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, agintaritza delegatuak emandako arau batean xedatutakoa ez betetzeagatik hasitako administrazio-prozedurak amaitzeko ebazpen zehatzaileak errebokatzen dira.

Hirugarrena.– Agintzea beharrezkoak diren izapideak hasteko, EAeko Administrazio Orokorrari ezarritako isuna betetzeko ordaindutako zenbatekoak bueltatzeko, dagozkion legezko interesak gehituta.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 12a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

ERANSKINA

ORDAINKETA

Kobratutako zehapenen zenbatekoa itzultzeko, Administrazioak ordainketaren hartzekodunaren bankuko datuak izan behar ditu Hirugarrenen Erregistroan. Erregistro horretan alta emateko edo bertan dauden datuak kontsultatzeko edo aldatzeko, telematikoki izapidetzea proposatzen dizugu, baina aurrez aurre ere kudea dezakezu.

1.– KUDEAKETA TELEMATIKOA.

Bankuko datuen kontsulta edo alta telematikoki kudea dezakezu esteka honetan sartuta:

https://www.euskadi.eus/zehapena_isuna/herritarren-segurtasuna/web01-tramite/eu

Kudeaketa telematikoa Eusko Jaurlaritzak onartutako ziurtagiri digitalak erabiliz egin daiteke.

Ziurtagiri digitalik ez baduzu, itzulketa kudeatu ahal izango duzu jakinaraziko zaizun kode pertsonala sartuta.

2.– AURREZ AURREKO KUDEAKETA.

Agindu honi erantsita doa Hirugarrenen Erregistroan alta eskatzeko inprimakia, zeina Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzaren Araubide Juridiko Publikoaren Arlora (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950, Erandio, Bizkaia –SIR O00028484–) bidali beharko baita.

Aurrez aurre, APELen 16.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, inprimakia, behar bezala beteta, bidali ahal izango duzu, honako modu hauez baliatuta:

a) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoen bidez, Zuzenean – Herritarrei Arreta Emateko Bulegoen bidez. Bulego horiek helbide hauetan daude:

- 1) Kale Nagusia 85, 48011, Bilbo, Bizkaia.
- 2) Andia 13, 20004, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa.
- 3) Ramiro de Maeztu 10 behea, 01008, Vitoria-Gasteiz, Araba.

(b) Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo toki-administrazioko edozein organotako erregistroen bidez, APELen 16.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

(c) Posta ziurtatuz, gutun-azal irekian, Posta-zerbitzuen prestazioa arautzen duen Erregelamenduaren 31. artikuluan ezarritako moduan (abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori).

2022ko otsailaren 1a, asteartea



HIRUGARRENAREN ALTA ALTA DE TERCERO

A HIRUGARRENAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO	
(1) NAN / AIZ / IFZ DNI / NIE / NIF	<input style="width: 85%;" type="text"/>
(2) Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena Nombre y dos apellidos / Razón social	<input style="width: 85%;" type="text"/>
Helbidea Domicilio	<input style="width: 85%;" type="text"/>
Posta Kodea Código Postal	<input style="width: 20%;" type="text"/> Herria Población <input style="width: 20%;" type="text"/>
Probintzia Provincia	<input style="width: 20%;" type="text"/> Herrialdea País <input style="width: 20%;" type="text"/>
Helbide elektronikoa Correo electrónico	<input style="width: 40%;" type="text"/> Telefonoa Teléfono <input style="width: 20%;" type="text"/>

B BANKUAREN DATUAK DATOS BANCARIOS	
IBAN	<input style="width: 85%; height: 20px;" type="text"/>
Titularra Titular	<input style="width: 85%;" type="text"/>
<p>OHARRA: Banku-kontuaren titularrak eta hirugarren interesdunak pertsona bera izan behar dute. NOTA: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.</p>	

C BAIMENA CONSENTIMIENTO
<p>Bulegoari baimena ematen diot goian adierazitako datuak egiaztatzeko. Autorizo a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economía a verificar los</p>
Sinadura eta zigliua Sello y Firma

D BANKUAREN ADOSTASUNA CONFORME BANCO
<p>Finantza-erakunde hauetan, ez da bete behar: No cumplimentar con las siguientes entidades: Kutxabank-Bankoa-Banco Santander-Laboral Kutxa- CaixaBank-BBVA-Sabadell-Banco Popular</p>
Sinadura eta zigliua Sello y Firma

E SAIL EDO ERAKUNDEAREN ONESPENA VºBº DPTO. U ORGANISMO
Baimendutako sinadura eta zigliua Sello y firma autorizada

Data / Fecha

Izazera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan zehaztutakoari jarraituz, jakinarazten zaizu eskaera honetan jasotako datuak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailako Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren "Informazio-sistema eta ekonomia- eta kontabilitate-kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko direla, hirugarrenaren alta kudeatzeko helburuarekin. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ditzakezu, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailako Zerbitzu Zuzendaritzara joz (Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).
 De conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos aportados en esta solicitud serán recogidos en un fichero denominado "Sistema de información y gestión económica y contable", propiedad de la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, con la finalidad de gestionar el alta de terceros.
 Usted puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastian, 1-01010 Vitoria-Gasteiz).

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
 tef. 945 01 89 78 – Fax 945 01 90 20 – e-mail Hac-Oce@euskadi.eus

INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

A: Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1. Pertsona fisikoa: NAN, AIZ edo pasaporte.
Pertsona juridikoa: identifikazio fiskaleko zenbakia.
2. Pertsona fisikoa: izena eta bi abizenak.
Pertsona juridikoa: sozietatearen izena.

B: Bankuaren datuak.

IBANA karaktere alfanumerikoen segida bat da, banku-kontu bat nazioarte-mailan identifikatzeko balio duena.

24 karakterez osatuta dago:

- Lehenengo 2 karaktere alfabetikoen herrialdea adierazten dute.
- Hurrengo 2 karaktereak IBANaren kontrol-digituak dira.
- Hurrengo 20 karaktereek bezero-kontuaren kodea (BKK) adierazten dute:
 - 4 karaktere: banku-kodea
 - 4 karaktere: agenzia-kodea
 - 2 karaktere: kontuaren kontrol-digitua
 - 10 karaktere: kontu-zenbakia

Banku-kontuaren titularrak eta hirugarren interesdunak pertsona bera izan behar dute.

C: Hirugarrenaren sinadura eta zigilua, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari baimena emateko identifikazio-datuak eta banku-datuak egiaztatzeko.

D: Bankuaren sinadura eta zigilua, banku-datuak egiaztatzeko.

Banku-erakundearen sinadura eta zigiluaren ordeztu, hirugarren interesduna banku-kontuaren titularrak dela dioen banku-agiria erabil daiteke.

* Finantza-erakunde hauek, ez da bete behar: Kutxabank, Bankoa, Banco Santander, Laboral Kutxa, CaixaBank, BBVA, Sabadell eta Banco Popular.

E: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Kasu bakoitzaren arabera, honako hauen fotokopia aurkeztu behar da:

- Nortasun-agiri nazionala (NAN).
- Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ), atzerritar egoiliarra izanez gero.
- Pasaporte, ez-egoiliarra izanez gero.
- Identifikazio fiskaleko txartela, pertsona juridikoa izanez gero.

INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACION

A: Datos identificativos de la persona física o jurídica según se indica a continuación.

1. Persona física: número del DNI, NIE o pasaporte.
Persona jurídica: número de identificación fiscal.
2. Persona física: nombre y dos apellidos.
Persona jurídica: razón social.

B: Datos bancarios.

El IBAN es una serie de caracteres alfanuméricos que identifican una cuenta bancaria a nivel internacional.

Está compuesto de 24 caracteres:

- Los 2 primeros caracteres alfabéticos, identifican el país.
- Los 2 caracteres siguientes, corresponden a los dígitos de control del IBAN.
- Los 20 siguientes caracteres, corresponden al código cuenta cliente (CCC), que está compuesto de:
 - 4 caracteres: código del banco.
 - 4 caracteres: código de la agencia.
 - 2 caracteres: dígito control de la cuenta.
 - 10 caracteres: número de cuenta.

El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.

C: Firma y sello del tercero autorizando a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economía a la verificación de los datos identificativos y bancarios.

D: Firma y sello de la entidad bancaria certificando los datos bancarios.

La firma y sello de la entidad bancaria podrán ser sustituidos por documento del banco que acredite que el tercero interesado es el titular de la cuenta bancaria.

* No será necesario su cumplimentación en las siguientes entidades financieras: Kutxabank, Bankoa, Banco Santander, Laboral Kutxa, CaixaBank, BBVA, Sabadell y Banco Popular.

E: A rellenar por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DOCUMENTACIÓN SOPORTE

Según el caso se adjuntará fotocopia de:

- Documento nacional de identidad (DNI).
- Número de identificación del extranjero (NIE), en el caso de extranjeros residentes.
- Pasaporte, en el caso de extranjeros no residentes.
- Tarjeta de identificación fiscal, en el caso de personas jurídicas.